

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Euskara ikasteko diru-laguntzetarako deialdia. 2017-2018 ikasturtea

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko otsailaren 16an izandako ohiko bileran, euskara ikasteko laguntzak emateko deialdia onartu zen.

Hartutako erabakiaren hirugarren atalean jasotakoari jarraiki eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu daitezzen.

Laudio, 2018ko otsailaren 28a

Alkatea

JON IÑAKI URKIXO ORUETA

DEIALDIA

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea euskara ikasteko diru-laguntza batzuk ematea da, beka sistemaren bitartez. Horiek ematen dira ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko, euskara delako, legez, Euskal Herriko jatorrizko eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideko hizkuntza.

Bigarrena. Onuradunak

Berez, Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke deialdi honen onuradunak, betiere, oinarri arautzailean azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

Kasuren batean eskatzailea Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Laudio Udalaren diru-laguntzen esleipenetzarako ordenantzan laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego ezin izango luke deialdi honen onuradun izan.

Hirugarrena. Epeak eta moduak eskabideak aurkezteko

3.1. Epeak.

Eskaerak aurkezteko epeak 2018ko urtarrilaren 2an hasiko dira eta uztailaren 16an amaituko da.

3.2. Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak Laudioko udaletxeko Idazkaritza Nagusian (Herriko plaza, z/g 01400 Laudio) aurkeztuko dira edo, baita ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehazten den moduetan.

Laugarrena. Bekak ematea

4.1. Ikastaro lagungarriak.

Deialdi honen bitartez, euskara ikasketetarako laguntzak emango dira ikastaroak 2017ko urriaren 2tik 2018ko ekainaren 29ra bitartean, biak barne, egindako euskara ikasketak izan badira, bai ikastaro arruntak bai barnetegi izaerakoak. Ikastaro guztiak euskaltegi homologatu batekoak izan beharko dira, ezinbestez.

4.2. Gastu lagungarriak.

Gastu lagungarritzat hartuko dira ikastaro arruntetako eta barnetegietako matrikula gastuari dagozkionak. Ez dira, ordea, bidaiak, materialak, janaria, ostatua eta abarraren gastuak lagunduko.

4.3. Bekak emateko erregimena.

Diru-laguntzak erabakitzeko orduan gastu lagungarria hartuko da kontuan eta gehienez ere haren ehuneko 50 edo 100 ematea onartuko da, oinarrien aplikazioaz. Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara-beken batuketak ezingo du 1.000 euroko muga gainditu.

Bekak eskuratzeko egiaztatu beharko da euskaltegiaren agiri batez emandako eskola-orduen %85era joan izan dela.

Kopuru horien onarpena deialdian diru nahikoa egotearen baldintzapean egongo da, bestela hainbanaketa aplikatu liteke.

Bosgarrena. Kopurua

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzen kopuru osoek ezingo dute ekimen honetarako alde zuzenik ikusitako 50.000 euroko aurrekontu zuzkidura gainditu.

Bestetik, balizko erreklamazioei aurre egiteko aparteko 500 euroko kopurua erreserbatuko da.

Deialdi honen ondorioz eratorritako 50.500 euroko gastu osoa Audio Udalaren indarreko aurrekontu nagusien 0900-3351-48101 ("Euskara ikasteko bekak") diru sailaren karguan egingo da.

Seigarrena. Oinarri arautzaileak eta BDNS

Deialdi honen bidez laguntzak lortzeko aurkeztuko diren eskaerak, berriazko oinarri arautzaileen aplikazioan onartu edo ukatuko dira. Esandako oinarri horiek Audio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko maiatzaren 19an eta ALHAOn argitaratu ziren 2017ko maiatzaren 29an.

Bestetik, deialdi honen BDNSko identifikatzailea 386619 da eta haren berri eta deialdiaren laburpena eman ziren 2018ko otsailaren 28ko ALHAOn.